



Hiri proiektuen erakusketa

Panelen itzulpena

Exposition projets urbains

Traduction des panneaux en basque

1. PANELA

URRUÑA, IRAGANETIK ETORKIZUNERA BI MENDEKO BILAKAERARI BURUZKO BEGIRADA

Urruña, tradizioaren eta hiri dinamikaren arteko bidegurutzean den herria

Ozeanoaren eta mendiaren artean kokatzen den herria, Larrun mendiaren magaletan. Luzaz, herriaren auzo historikoak, elizak eta auzo zein baserriek egituratzen duten Lapurdiko herri baten izaera mantendu du.

Urtubiko gaztelua, XIV. mendean eraikia eta XVII. eta XVIII. mendeetan birmoldatua, tokiko boterearen iraupenaren lekukoa izan zen, eta, aldi berean, herriak munduarekiko zuen irekiduraren adierazlea ere. Lurraldearen historia moldatu zuen, eragin handiko leinuen egoitza izan zen, gertaera militar edo diplomatikoen erakuslea. Gaur egun, memoriaren, ondarearen eta kulturaren zaindaria da.

Baserrialdeko herri izatetik hiri bilakatzera

1960ko hamarkadatik aitzina, **Urruña urbanizazio aro** batean sartu zen. 1968an, biztanle dentsitatea 83 biztanle/km²-koa zen. Berrogeita hamar urte geroago, 2018an, 200 biztanle/km²-ka gainditzen ditu. Aldaketa horren eta bizitegien erakargarritasunaren ondorioz, herria, euskal itsasbazterreko eta mugaz gaindiko hiri sisteman laster sartu zen.

Kexiloa, Pausu, Zokoa, Oleta edo Mendixoko auzoetan, koherentziarik gabe eraiki etxebizitzak biderkatzen hasi ziren, lursailen kontsumo masiboa eraginez.

2. PANELA

URRUÑA, IRAGANETIK ETORKIZUNERA BI MENDEKO BILAKAERARI BURUZKO BEGIRADA

Funtsaren, gizartearen eta ingurumenaren gaineko presio azkarra

Karta postalaren irudiaren atzean errealitatea konplexua da:

- Higiezinaren prezioak azkarki goratzen dira,
- Bigarren etxebizitzak parkearen parte garrantzitsua osatzen dute,
- Arrazoizko prezio batean eskuragarriak diren etxebizitzak kopurua urria bihurtzen ari da,
- Herriko lur baliabideak agortzen ari dira

ZENBAKI BATZUK

Etxebizitzak parkearen banaketa

- Hutsik diren etxebizitzak : %6,4
- Bigarren etxebizitzak/ Noiztenkakoak : %20,3
- Etxebizitza nagusiak : %73,3

Etxebizitza motak

- Etxeak : %50,9
- Apartamenduak : %49,1

Okupazioaren egoera

- Jabeak : %71,1
- HLM Alokataileak : %10,6
- Gainerateko alokataileak : %18,3

Tentsio handiko testuinguru horretan, herriko etxea bihurgune batera iritsi da : hirigintza erregulatzearen, babestearen, berreraikitzearen, menperatzearen beharra.

Itsasbazterreko Legea: zer da?

1986an onartu **Itsasbazterreko Legeak, itsasbazterreko natur eta laborantza guneak babesten ditu.** 2018az geroztik, legearen aplikazioa gogortu da: eremu eraikigarriak murriztu dira eta lursail ainitz eraiki ezinak bilakatu dira.

Itsasbazterreko legea herri osoan aplikatzen da, eta, hemendik aitzina, **proiektu berriak soilik, jadanik urbanizatuak dire eremuetan (herri barnea, Zokoa eta Pausu) bideratzen ahalko dira.**

Horrek garapenerako aukerak mugatzen ditu eta herria antolatzeke molde berrien asmatzera behartzen du. Lur funtsak gutxitzen ari den testuinguru honetan, kolektibitateek urbanizazioa dentsifikatu behar dute biztanleen bizi kalitatea eta lurraldeen iraunkortasuna babesteko.

3. PANELA

URRUÑA, IRAGANETIK ETORKIZUNERA BI MENDEKO BILAKAERARI BURUZKO BEGIRADA

Urrats berri bat: hirigintza menperatua eta trantsizio ekologikoa

2020az geroztik, **gehiengoak xede argia iragarri du**, beti ere, legearen errespetuan, hala nola, itsasbazterreko legearekin bat eginez: hedapena gelditzea, laborantzarako lurrak eta natur guneak babestea eta herrian bizitzeko eskubidea erraztea.

Horretarako erabaki du:


- Herriaren bihotzean hirigintza operazio publikoen garatzea,
- Antolaketa eta Programazio Norabideak herri barnean plantan ezartzea,
- 2024ean gizarte nahasmendurako hitzarmena izenpetzea.

Urruña aldatzen ari da, baina ez du bere nortasuna ukatzen: bere iraganaren ondareak, gaur egungo erronkak eta etorkizun solidario, ekologiko eta menperatu bati buruz joateko anbizioa uztartzen ditu.


Dentsitate desiragarria eta iraunkorra helburu

Eta dentsitatea, batez ere, pertzepzio kontua balitz?


Hemen behean, 1 ha-ko 67 etxebizitzako eragiketa bat egiteko molde desberdinak ikusgai.



Goratasun handia



Goratasun apala



Goratasun ertaina

4. PANELA

URRUÑAKO HERRI BARNEAREN DINAMIZATZEA ELKARBIZITZARAKO GUNE BAT

Urruñako herri barnea biziberritzeko proiektuak, herriaren bihotzari arnasa eman nahi dio, tokiko nortasunean errotzen eta lagunen arteko giroa eskaintzen duen gune bat sortuz. Eraldaketa hori herritarrekin, merkatariekin, elkarteekin eta lurraldeko eragileekin burutu gogoeta partehartzaile zabal batean oinarritzen da.

Herritarrekin eraiki desmartxa bat

Proiektuan zehar, **herriko etxeak ko-eraikuntzaren aldeko hautua egin du**, trukaketarako eta adierazpenerako espazioak biderkatuz:

- Herri barneko beharrak eta lehentasunak identifikatzeko inkestak, **diagnostiko partekatuak eta lankidetza-tailerrak burutuz**
- **Bilkura publikoen eta auzo batzordeen bidez** herritarrekin elkarrizketa zuzena bultzatuz
- **Haurren herriko kontseiluarekin eta Goxo Toki adinekoen poloarekin trukatzuz** adin ororen beharrak eta nahiak kontuan hartu daitezen bermatzeko.

Dinamika partehartzaile horri esker, urruñarren araberako xede bat marraztu nahi izan da, hirigintza operazio ausartak eta tokiko ohiturak errespetatzen dituen proiektu bat hain zuzen ere.

5. PANELA

URRUÑAKO HERRI BARNEAREN DINAMIZATZEA ELKARBIZITZARAKO GUNE BAT

Herritarren proposamenak proiektuetan integratu dira

- Herriaren bihotzaren zentralitatea indartzea : Belaunaldien arteko topaketak errazten dituen plaza bizi bat
- Oinezkoentzako eta bizikletarientzako ibilbide leun eta seguruak proposatzea, mugikortasun iraunkorra bultzatzeko.
- Parke publiko irisgarriak sortzea herritar guzientzat : jostalekuak, altzariak eta seinaleketik egokia
- Herri barneko sartzak berrantolatzea, irakurgarritasun eta arintasun handiagoa eskaintzeko.
- Auzoen bizilekuen/jardueren arteko lotura indartzea, batez ere, Osasuna auzoaren eta René Soubelet plazaren artean.

2019 Tokiko Hirigintza Planaren baitako (THP) Antolaketa eta Programaziorako Norabideak (APN) 10 eremuak identifikatzen ditu

2021eko bukaera hiri antolaketari buruzko bi ikerketen abiatzea : herri barnea (Deux Degrés bulegoa) eta mendebaldeko sartzak (Samazuzu)

2022ko abendua Antolaketa Hitzartuko Auzoa (AHA)ren sorrera

2021eko abendua THPren moldaketa sinplifikatua APNen urbanizatzea lehenesteko

2023ko otsaila Herri barneko hirigintza proiektuari buruzko bilkura publikoa

2023ko apirila herri barnearen etorkizunari buruzko lehen tailerrak

2023ko abendua herri barnea dinamizatzeko ekintza norabideak eta APNaren eremuen egokitzapenak aurkezteko bilkura publikoa

2024ko maiatza gizarte nahasmendurako hitzarmena 11 instituzio eta etxebizitzaren eremuan ari diren eragileekin izenpetu da

2024ko iraila Antolaketa eta eraikuntzaren herriko xartaren onarpena

2025eko otsaila THPren 2. Moldaketa

2024ko ekaina eta 2025eko uztailaren artean Iturluxea auzoko biztanleekin 3 kontzertazio bilkura eta bertako etorkizuneko erabiltzaileekin gogoeta

2025eko ekaina THPren Lehen eta 3. moldaketak (onartuak) eta 2. Moldaketa sinplifikatua (abiatua)

2025eko ekaina Sokorri/Mendi Bixta eremuko auzoko biztanleekin kontzertazioa

Desmartxa parte hartzaile horrek aitzina segitzen du

6. PANELA

URRUÑAKO HERRI BARNEAREN DINAMIZATZEA ELKARBIZITZARAKO GUNE BAT

Herriaren nortasuna zaintzen duen biziberritze proiektua

Urruñako herriko etxeak, **herritarren parte hartzea eta herriaren anbizioa uztartu** nahi izan ditu, herri barnea biziberritzeko, bere historiari fidela geldituz, etorkizunera begira eta **belaunaldi guzien zerbitzura ezarri. Herriak kultur gertakari garatzen ditu.**

Herriko etxeak, herri barneko ekonomia eta zerbitzu dinamikak sustatu nahi ditu

- Hibia eraikina medikuntza analisi laborategi bat sortzeko saldu da (Osasuna eremua)
- Zugazti okindegi ohiaren erosketari esker kafe literario bat plantatuko da (herri barne historikoa)
- Hirigintzako operazioen baitako beste proiektu batzuk garatuko dira.

Hibia eraikina, medikuntza analisi laborategi bilakatuko da

7. PANELA

ETXEBIZITZA

LEHENTASUNEZKO ERRONKA

Hobekiago bizitzeko proiektuak


- **Funtsa eta dentsitate handiko guneetan eraiki gabe atzematen diren espazioen menperatzea:** Urruñako paisaiak eta nortasuna babestea, erronka klimatikoak kontuan hartzen dituen garapen koherentea bermatuz,
- **Etxebizitza berrien eraikuntza:** « Urruñako Antolamenduaren eta Eraikuntzaren Xarta » printzipioen arabera kalitatezko proiektu orokorrak
- **Eraikinen berritzea,** ondarea zaintzeko eta, aldi berean, etxebizitza-beharrei erantzuteko.

Etxebizitza soziala: zer da?

- Etxebizitza sozial bat **Estatuarekin finantzatzen eta hitzartzen den etxebizitza bat da.**
- Etxebizitza sozial **mota desberdinak atzeman daitezke** : alokatze soziala, jabegora heltzeko laguntzak, adinekoentzako egoitzak, egoitza sozialak etab.
- **Alokatzeko etxebizitza mota desberdinak atzeman daitezke** : familien baliabideei egokitzen zaizkien prezio maila desberdinak


Nork eskuratu dezake etxebizitza sozial bat?

Etxebizitza sozialak baliabideen arabera esleitzen da.



ALOKATZEKO ETXEBIZITZA

SOZIALA: Alokatzeko etxebizitza mota hedatuenerari begirako 2025eko prezioen taula (PLUS)



JABEGORA HELTZEKO LAGUNTZAK: "Elkartasunezko alokantza kontratu erreala" gisako etxebizitza sozial batentzat (etxebizitzaren erosketa; lurra lur funtsen elkartasunezko erakunde batenak gelditzen dira, erosketa prezioa mugatzeko, erosketa baldintzak errazteko eta higiezinaren espekulazioa saihesteko) 2025eko prezioen taula

8. PANELA

ETXEBIZITZA

LEHENTASUNEZKO ERRONKA

- **Urruñarren %70ak etxebizitza soziala alokatu dezake** : etxebizitza eskuragarrien eraikitzeke premia erakusten duen zenbakia.
- Urruñako alokairuaren batez besteko prezioa 10,7€/m² ingurukoa da, alokairu sozialeko etxebizitzetarako alokairuak (PLUS eta PLAI motakoak) 6,42€/m² eta 5,71€/m² direnean.
- Gaur egun Urruñan 1.200 familiak alokairu apaleko etxebizitza baten beharra eta horien arteko 250etik goragokoentzat Urruña lehen hautua izan da ; horietatik erdiak 30 eta 50 urte bitartekoak dira, eta %45a bakarrik bizi direnak.
- Hirigintza proiektu berrien baitan **etxebizitzaren % 70a soziala eta arrazoizko prezioetan eskuragarriak** izatea aurreikusi da, 2021eko tokiko hirigintza planean finkatutakoaren arabera.
- **Hiri Elkartasuna eta Berritzea legeak etxebizitzaren artean %25a soziala** izan dadin inposatzen du: Urruñan, betebehar horri esker, nahasmendu soziala indartzen ahalko da eta pertsona guzientzako etxebizitza eskuragarriak eskaintzen ahalko dira. Gaur egun Urruñan % 12koa da. Tarte horren ondorioz, herriak urtero, 300.000 €-tik gorako zigorra ordaindu behar du.
- **Nahasmendu sozialerako hitzarmena - 11 partaideek Nahasmendu sozialerako hitzarmena** izenpetu dute 2024ean. Hitzarmen horren bidez etxebizitzaren ekoizpenak herrian duen beranta berreskuratzeko ekintza-plan kolektibo bat zehazten du.
- **600 etxebizitza** : hau da, 2022an herrian atzeman daitezkeen etxebizitza sozialen kopurua eta HEB legea betetzeko eraikitzeke eskas den etxebizitza sozialen kopurua.

9. PANELA

ETXEBIZITZA

LEHENTASUNEZKO ERRONKA

BA AL ZENEKITEN ?

Bizilekuen hobetzeko laguntzak

Jabe okupatzaileek eta alokatzaileek diru-laguntzak eskuratu ditzazkete 15 urte goragoko etxebizitzak berritzeko, izan, eraikinen berritze osoa egiteko, berritze energetikoa egiteko, adinekoak edo ahalmen urriko herritarrak etxean mantendu daitezen eraikinen edo duintasunik gabeko etxebizitzak egokitzeko.

Informazio gehiago

Maison de l'Habitat et de l'Energie

Tel: 05 59 44 77 80

E-Posta: maison.habitat@communaute-paysbasque.fr

Hurrengo 5 urteetarako garapenerako hiru sektore lehenetsi dira :

- **Iturluxea - Antolaketa eta Programazio Norabideak- lehen fasea:** familientzat, gazteentzat eta adinekoentzat pentsatu etxebizitza programa mixtoa, zerbitzuak eta parke publiko batekin
- **Sokorri/ Mendi Bixta- Antolaketa eta Programazio Norabideak:** tokiko ingurumenean integratuak eta arrazoizko prezioan eskuragarriak diren etxebizitza proiektua, parke publiko bat.
- **Hiri barneko sartzeara- Antolaketa eta Programazio Norabideak- lehen fasea:** operazio mixtoa (etxebizitzak publiko ororentzat, komertzioak, zerbitzuak, espazio publikoak) etorkizunari begira (aldaketa klimatikoa/ elikatzen naiz, lo egiten dut, bizi naiz, lan egiten dut ahal bezain hurbil etab).

« Herri barneko » sartzearentzako APNa- 4 urteko negoziazioaren ondoren, Euskal herriko EPFL funts agentziak 3 ha lurra eskuratu ditu onez oneko akordio baten bidez. Hortaz, eragiketaren lehen fasea obralari publiko batekin abiatzea erabaki da. Gaur egun, proiektua definitzeko hiru obralarik hautagaitza igorri dute.

Hautatuko den obralaria 2026an ezagutaraziko da

10. PANELA

ITURLUXEA

GEROARI BURUZ ITZULIA DEN GIZA TAMAINAKO AUZO AUSART BERRI BAT

Egitasmoa ulertzeko gako batzuk

- Herri barneko dentsitate handiko guneeetan eraiki gabe atzematen diren 1,3 ha-ko antolaketa
- Urruñar guzientzako paisaia parke publiko bat eta bide leunak
- Forma eta erabilera nahasmendua: etxebizitzak eta zerbitzuak

Orotara HSAk proposatu 87 etxebizitza:

- Alokairu sozialeko 36 etxebizitza,
- Elkartasunezko Alokantza Kontratu Errealaren bidez eskuratu daitezkeen 27 etxebizitza (BRS),
- SOBRIMek arrazoizko prezioetan proposatu 24 etxebizitza

11. PANELA

ITURLUXEA

GEROARI BURUZ ITZULIA DEN GIZA TAMAINAKO AUZO AUSART BERRI BAT

Belaunaldi desberdinentzat, hala nola, familientzat, gazteentzat eta adinekoentzat bizitzeko atsegina izan nahi duen eta tokiko ezaugarriekin bat egiten duen auzo bat

- **Lurraren topografiaren arabera egokituko da eta bistak errepetatuko ditu:** giza tamainako eta goratasun aldakorrek hainbat etxebizitza kolektibo ttipi proposatuko dira, etxebizitzaren arteko distantzia errespetatuko da, auzoaren lasaitasuna bermatzeko autoak kanpo ezarriko dira
- **Urruñako eta Euskal Herriko arkitekturaren kodeak bereganatuko ditu:** teilatu aldapatsuak, estaldura leungarri zuriak, zureria tradizionalaren kolorea
- **Elkarbizitzarako egokia den auzo lasaia:** mugikortasun urriko irrisgarria den paisaia parke publikoa, karrikarte eta plazatxo partekatuak, bistaleku eraikiak
- **Herri barnearekin eta inguruko auzoekin konektatua** izanen den auzoa oinezkoentzako eta bizikletentzako sortu bideei esker

Eta bihar hemen biziko bazina?

Arrazoizko prezioan eskuragarriak diren etxebizitzak eraikiko dira, soilak eta berritzaileak, ingurumen babestu baten erdian, ezkila dorreak eta Aiako harriak ikusmiran, herri barnetik eta zerbitzuetatik hurbil. Iturluxea proiektua 2022an herri barneari begira, herritarrekin hasi kontzertazioaren baitan adierazi beharren isla da.

Auzo horretan, etorkizunean, eraikiko den etxebizitza batean instalatzeko interesa baldin baduzu, herriko etxearekin harremanetan sar zaitezke : 05 59 47 44 44

12. PANELA

ITURLUXEA

TRANSIZIO EKOLOGIKOAREN ERAKUSLEHIOA

Herri tradizionalak etorkizuneko ikuspegiarekin topo egiten du, garapen iraunkorrari, hiri izaerari, arkitektura berritzaileari dagokionez.

Uraren kudeaketa, bioaniztasuna, natura herrian, baliabideen ekonomia

- Landaketa berriak (200 bat) eta tokiko landareen aniztasuna (bocage gisako eremuak, fruitu arbolak, ibarbasoak)
- Berdeguneen kudeaketa berezitua
- Uraren zikloaren kudeaketa eta balioztatzea

Proiektua Akitania Berriko Eraikin Iraunkorra (BDNA) laguntza dispositiboan sartu da ingurumenarri eta gizarteari begirako erronkei erantzuteko xedez.

- Ur atxikitze integratua edo aire zabaleko ur atxikitzea: euri uren infiltrazioa, lurreko euri urak bideratzeko sistema
- Etxeko erabilera elikatuko duen berreskuratze sistema (sanitarioa): euri uren berreskuratze ontziak, espazio publikotik ikusten ahalko den eta euskal errekek eredu hartzen dituen "uraren bidea"

13. PANELA

ITURLUXEA

TRANSIZIO EKOLOGIKOAREN ERAKUSLEHIOA

Kalitatezko proiektu berritzaile hau sariztatua izan da (25/07/17ko BDNA batzordearen zilarrezko medaila – "diseinu" fasea)

Urtebeteko kontzertazioa

- Partaidetzan bideratu urratsa: hautetsiak, teknikariak, arkitektoak, herritarrak
- Epe luzerako proiektua: etorkizunean sortuko diren erabilerak kontuan hartzea
- Lasai izateko, jolaserako, elkartzeko guneak: herritarrekin eta erabiltzaileekin pentsatuak

2025eko ekainaren 17an iragan Herriko Haurren Kontseiluko saioan, hurrek, Iturluxea xedearen baitan sortuko den parke publikoaren antolamenduari buruzko gogoetan parte hartu zuten. Bertan atzeman nahiko luketena marrazteko gomita luzatu zitzaien.

Lana aitzina doa!

14. PANELA

SOKORRI/MENDI BIXTA OPERAZIOA

BERDEGUNEZ INGURATUA DEN HERRI BARNEKO AUZO BATEAN BIZI

Egitasmoa ulertzeko gako batzuk

- 1, 26 ha antolatuko dira
- Orotara 70 etxebizitza proposatuko dira :
 - Alokairu sozialeko 28 etxebizitza
 - Arrazoizko prezioan eskuragarriak izanen diren diren 42 etxebizitza
- Paisai parke publiko bat
- Bide leunak oinezkoentzako eta bizikletarientzako

Bizitegien Langile Batzordeak, Urruñako herri barne historikotik hurbil kokatuko den etxebizitza operazio bat bideratuko du.

15. PANELA

SOKORRI/MENDI BIXTA OPERAZIOA

BERDEGUNEZ INGURATUA DEN HERRI BARNEKO AUZO BATEAN BIZI

Auzoarekin eta lursailarekin zuzeneko harremana duten elementuen gainean oinarritzen den antolaketari buruzko gogoeta :

- « **Herri-karrikak** » **eredutzat hartu** dira eta testuinguru horretan, karrikak etxebizitzekin garatzen duen harremana inspirazio iturri izan du proiektuak
- **Jadanik plantan den antolaketarekin koherentzia eta harmonia izanen** den urbanizazio eta arkitektura bat proposatzeko xedea du
- **Paisaia handien, berdeguneen eta arbol nabarmenen gaineko bistak** eta lursailen egoera ona babestu (zedroa, haritz gorria, platanoen lerrokatzea) nahi ditu

Paisaia bizi eta nabarmendu batean proiektu lasaia eta harmonizatua bermatzeko antolaketarako irizpideak :

- Herri-barnea zeharkatzen duen eta auzoko etxeekin distantzia mantentzen duen, **karrika nagusi eta lasai bat** (herritarrekin gogoetatua)
- Nafarroako pasabidearekin eta departamenduko errepidearekin, eskolekin, hilerriarekin Bixikenearekin, Sokorriko Andre dena Mariaren kaperarekin konektatzen diren **oinezkoentzako bideak**
- Bioaniztasunaren aldeko kudeaketa berezitua bermatzen duen **baso parke handi bat**
- Lurraren aldapa naturalaren arabera eta giza tamainako hainbat eraikin ttipi plantan ezartzea

16. PANELA

PROIEKTUAK IRUDIETAN ETA ERAGILEEN LEKUKOTASUN BILKETA

Atzeman ezazue hemen, loturak bideoak begiratzeko.

Antolaketaaren anbizioa eta printzipioen aurkezpena obralarien eta lan taldeen eskutik

SOKORRIKO ERAGIKETA/ MENDI BIXTA EREMUA

Romain DINGREVILLE, Bizitegien langile batzordea <https://www.youtube.com/shorts/PQdNsiS4zig>

Lursailak eskaintzen duen dentsifikaziorako espazioa ez dugu %100ean baliatuko, auzoko biztanleak eta ingurumenari begira bertutezko proiektu bat garatzeko.

Gaëlle MANE, Reliefs agentzia <https://www.youtube.com/shorts/Obzc4egdMp0>

Erabaki dugu lursailean landatua den eta etorkizun ederra duen zedro gaztea, alde batetik, eta bertan atzematen den platano lerroa babestea.

Boris LE TEXIER, Les Architectes Anonymes agentzia <https://www.youtube.com/shorts/aFHOjDB3GNY>

Herri barneari begira izigarri estrategikoa den lekua da. Helburua da, bizitegi gehienek Larrunera edo paisaia handiei begirako bista ukan dezaten. Eraikinen goratasunak, tokiko biztanleen errespetuan, aldapa zuhurki segitzen du.

ITURLUXEA

Laurent BOROTRA, Les Architectes Anonymes agentzia <https://www.youtube.com/shorts/sBQb5UyDjeQ>

Helburua da lurraren topografiari egokitzea. Aurreikusten dugu eraikin gehienak R+2koak izatea, R+3ko gutti batzuekin. Teilatu aldapatsuak eta teilak izanen dira, estaldura leungarri zuriak baliatuko dira ere, Urruñako eta orokorki Euskal Herriko kodeak osoki berriz hartuz

Jean-Romain LESTANGUET, Habitat Sud Atlantic <https://www.youtube.com/shorts/bKKEVMa9fvl>

Iturluxea proiektua, etxebizitza eskaintza bat baino espazio publikoaren inguruko proiektu bat da, irrisgarritasuna, belaunaldien arteko harremana, elkarbizitza sustatzeko helburua du eta herritar eta Urruñar guzientzat egina da.

Fabien BERTOCCHI, Nobatek <https://www.youtube.com/shorts/h8eiM2YAInM>

Ura, gaur egun, geroz eta urriagoa egiten den baliabide bat da eta arretaz zaindu behar dugu. Eraikinak hornitzeko, ur edangarririk behar ez denean, hala nola, garbigeletako tresnerian baliatuko diren euri urak errekuuperatuko dituzten ontziak aurreikusi ditugu.